

INTSUMISIOA ASKATASUNA DA

Estatuek baliabide asko dituzte herriak lotuta eta ondo lotuta mantentzeko. Baditu legediak, legebiltzar salduak, epaile faltsoak polizia eta noski, ejerzitoa.

Ejerzitoak era ezberdinetara zapaltzen gaitu: alde batetik, kontrol militarra ezartzen dute biztanlego zibilarengan (hemen Euskal Herrian oraindik ageriagoa), bestetik lurralde asko okupatzen dituzte beraien maniobretako (Jaizkibel adibide), miloiak gastatzen dituzte armak

erosteko (gastu militarrek) eta batez ere, gizarte honetan, gazteok soldadutza bete beharra, 17-18 urte betetzean. Hilabeteetan zehar, herritik kanpo, lagunetatik urrundu eta heziketa militar bat eman nahi digute, hau da, burua zuritu. Giza nortasunaren balore arbuigarrienak defendatzea, sumisio osoa agintariei, ez pentsatzea,... Ejerzitoak indarkeria, sexismo matxista, obediencia itsua eta honelako baloreak ezarri nahi dizkigute. Eta hori bizirik irten ezkerro, ze zenbat gaztek galtzen dute bizitza soldaduskari? Zenbaterik jasaten dituzte tratatu txarrak, humilazioak?



Lezok argi adierazi die Militarrei ez ditugula inguruan ikusi ere egin nahi.

HISTORIA PIXKA BAT

Badira urte batzuk, hainbat gazte uko egiten hasi zela kolektiboki soldaduskari. Halere ez da berria, ez, soldaduskara ez joatea. Nafarroan, 1841etik, «Quinten» ezarpena izan zenetik hasi ziren lehen profugoak (1892) eta euskaldun askok Iparraldera jo zuten ihesi. Beranduago, 1920. urtean Hegoameriketara emigratu zutenen artean gazte «profugo» ugari zen. Iparraldean ere, bigarren gerrate mundiala hasi zenean askok Hegoaldera jo zuten. II.gerra zibilaren ostean ejerzito faxistak gaur egun ezagutzen dugun «erreklutamendu» sistema ezarri zuen. Orduz geroztik, jende asko ukatu da, baina esan dezakegu azken 20 urte hauetan hasi zela zabaltzen kolektiboki halako jarrera antimilitarra.

Ejerzitoa (gure kasuan espainiarra eta frantsesa) sekula ez da izan ikusia begi onez, bai beldurrez. Eta beldur honetaz baliatzen eta baliatu izan dira oraindik ere gazteak erreklutatzeko.

1976.urtean lehen Objezio legea onartzen da estatu espainolean eta lehen obje-toreak azaltzen hasten dira. 80. hamarkadan kontzientzi eragozpena asko zabaltzen da eta 1984an objetoreen kopurua 23.000 ingurura igo zen, presioa asko haundituz. Bitartean berehalako eragozleak edo «objetore sobrevenidos» direlakoak hau da, soldaduska egiten hasi eta ondoren objetatutako gazteak espetxeratuak izaten dira eta kalean lehen mobilizazioak hasten dira, «Objetore presoak askatu» lemapean. Herri bakoitzetan egiten ziren tallaketak apurtzen dira (tresnak puskatu, paperak erre,...) eta zozketa egunetan ere hainbat mobilizazio burutzen dira.

Ondoren, gobernuak «Ley Reguladora de la Objeción de Conciencia» delakoa onartzen du, ordezk zerbitzuarekin batera. Lege honekin, alde batetik, ordurarte zeuden objetore asko reserbara edo amnistiatuak izan ziren (22.000) inguru estatu espainiarrean) eta besteei legea aplikatzen saiatu ziren, ordezk zerbitzua ere martxan jarri. Bestetik, «C.N.O.C.» (Consejo Nacional de Objeción de Conciencia) antolatu zuten. Honek tribunal papera du eta berak erabakitzen du zein den objetore eta zein ez, hau da bakoitzaren kontzientzia juzkatu, hori da kontseilu honen lala. Era berean, objetore onartu ezkerordezko zerbitzu soziala (p.s.s.) bete behar (soldaduskaren denbora bikoitzekoa).


Giro honetan ejerzitoaren aurkako borroka zabalduz doa eta 1988an gobernuak ordezk zerbitzuaren erregulazio legea onartzen du, mugimendu antimilitarraren aurka neurri legalak bideratuz.

Objezio legea onartu zenetik jende ugari jarraitzen du objetatzen, nahiz eta ordezkkoa martxan jartzen saiatu. Berriro kopuru pilaketa hasten da eta testuinguru honetan «INTSUMISIOA»ren bidea hartzea erabakitzen da estatu mailan, iparraldekoak (Galizia, Kantabria, Errioxa, Burgos eta hego Euskal Herria) burututako topaketa batzuetan ere erabaki berdina hartuz. 1989an lehen objetore intsumiso euskalduna aurkezten da Arabako kuartelean. Intsumisioaren helburua ejerzitoaren aurka deso-

bedientzi zibil zuzen bat ematean datza, soldaduskara edo ordezkora joateko jarritako egunean ez joanez eta era berean, postura publikoa eginez. Lehen atxilotetak hasten dira, epaiketa militarrekin batera. Aldi berean, lehen udal-letxe intsumisoak azaltzen dira, ejerzitoarekin kolaboratu nahi ez dutenak. Intsumisioen aurkako errepresio selektiboa hasten dute militarrek eta Hego Euskal Herrian 15-20



Argi geratu da zein den Euskal Gaztediaren oihua: INTSUMISIOA.



Bultza dezagun elkarrekin, zahar eta gazte, MILITARRAK KANPORA!

intsumiso preso kopurua mantentzen dute, batzuk atxilotuz, besteak aske utziz, beste asko «orden de búsqueda y captura»pean, mugimendua gelditu nahiean.

1991an intsumisoen kopurua hego Euskal Herrian %5 da eta objetore eta intsumiso artean %50 bada iadanik betetzen ez dutenak zerbitzu militarra. Bitartean, Iparraldean lehen hiru intsumituak agertzen dira.

1992. urtean militarrek epaitegi zibilei relegatzen die «arazoa» eta lehen epaiketa zibilak hasten dira intsumisoen aurka. Berrero ere espetxeratzeak hasten dira baina era selektibo batean, denekin ezin dutenez. Honen ondorioz geldiene bat ematen da intsumisoen kopuruan.

Iparraldean berriz, intsumiso guztiak epaitu eta espetxerutzen dituzte baina hala ere gehiago agertzen dira.

1993an, intsumiso kopurua izugarri gehitu da; legearen aurrean ez izkutatzea, alegia, ez dagoela deliturik, epaitegi berezien aurrean jokaera honen arrazoiak azaltzea eta honelakoak jarrera koherente baten adierazgarri dira. Gizartearen baitan ere ulertzen hasten da eta jarrera hau gero eta onartuagoa da (autoinkulpazioak eta elkartasunak adierazten duten bezala).

Garai hauetan Nafarroan badira hainbat intsumiso preso, baita estatu mailan ere. Gipuzkoan 1993ko amaieran hasten dira lehen epaiketa masiboak, ordezko zerbitzu soziala betetzera ukatu diren intsumisoen aurkakoak, hain zuzen ere, zigor eskaera 2 urte, 4 hilabete eta egun batekoa izanik. Ordezko zerbitzuak, lanpostuak kentzeaz gain zigor bat besterik ez da eta soldaduskaren eskema berbera jarraitzen du. Epaiketa masiboak eguneroko gaiak dira eta Nafarroa esperientazio laborategi bezala erabili

dute, azken hilabeteetan ehundaka gazte nafar epaitu eta espetxeratu bait dituzte. Espetxe barrukoei 3. gradoa (lotara joan beharra) ezartzen diete dekretoz, errepresioa kamuflatu nahian. Intsumiso presoak planteatu egiten dute 3. gradoari eta atxilotu eta zigortuak dira, dispersioaren mehatxupean.

Aldi berean, ejerzitoak irudi garbiketa kanpainarekin jarraitzen du: soldaduskaren iraupean bederatzi hilabeteetara jeitsi, «bake misioak» lejionarioen eskutik Bosnian, «modernizazioa», objetore legalak bidaltzen gerla tokietara eta hauen inguruko kanpaina guztiak intsumisook mespretxatzeko, gizartearekin intsolidarioak garela eta honelakoak. Honekin batera errepresioa areagotzen dioa eta espetxeratu nahiz «búsqueda y capturan» jarriz.

Honela gaur egungo egoerara iristen gara, tartean, aipatu ez ditugun hainbat gertakari izan arren. Orain epaitegi zibilek hartu dute militarren lekukoa eta gizartean beste iritzi bat egon arren intsumisioa penalizatzen ari dira. Alde batetik sententziak aurretik emanak daudela pentsatzen dugu, justizia gobernu eta militarren agindupean bait dago. «Arazo» hau, gainera ez da judiziala, politikoa baizik eta soluzioa ere hildo beretik iritxi behar du.

Errepresioa hartzen ari den tamainaren aurrean gizarte desmilitarizatu baten alde borrokatzen dugun guztiok neurri berean erantzun behar dugu. Ez dezagun onartu neurri judizialik!! Intsumisioa ejerzitoari egiten diogunean ondorengoei ere berdin erantzun behar diegu, desobedientziarekin. Aspaldidanik dakigu justizia bera ere zein ustela dagoen, Amedo eta Dominguez bezalako torturazailerak eta hiltzaileak aske uzten dituen bitartean intsumisoz bete nahi dituzte espetxeak, era xamur batean. Zergatik azaldu bada epaiketetara? Bada garaia epaileen aurrean ere intsumisioak izateko.

Justiziarik ez da existitzen, ez hemen, ez inon, botere defendatzailea ezik. Azken epaiketak intsumisioen bidea markatu nahi digute: epaiketak, sententzia, kartzelaratzea, 3. gradoa, ... Guk ez dugu jarraitu behar bide hori eta beraiek gu hortik pasatzea nahi badute indarrez egin beharko dute, errepresioaren bidez, ez gure borondatez. Orduan agerian geldituko bait da intsumisioen aurkako errepresioa, eskoletan, lanean, etxean, kalean atxilotu beharko gaituzte. Honela justizi ministeritzak nahiz barne ministeritzak



ehundaka gazte «orden de Gogotik saiatu arren, ez gaituzte komentzitzen.

Utzi pakean
Herria
ZURUTUZA
1.994



búsqueda y captura» delakoaren menpe egoteari aurre egingo beharko diote, desobedientzi zibila maila guztietara zabalduz, egoera injustu baten aurrean.

Zer esanik ez errepresio izkutu hau gauzatzeko polizi ezberdinak betetzen ari diren papera (ERTZAINZA, GUARDIA ZIBILA, PAF, CRS, POLIZI NAZIOANALA eta era guztietakoak...). Denak «demokratikoak», «bakearen aldekoak»,... baina egurtzeko eta atxilotzeko beti prest. Ez da ez, lehen aldia, etxera azaltzen direla ertzainak gugatik galdezka gure senideei, intsumiso izategatik. Eta ez da azkena izango ere. Agerian dago, horretarako bait daude, Estatua eta boterea defendatzeko eta aurkaño ohiuak ixilarazteko.

Zer esanik ez partidu politiko askoren hipokresiar buruz, itxuraz intsumisioa onartu eta lagundu arren atzetik, beraiek sortutako zakur amurratuak gure gainera botatzen dizkigutela. Benetan giarte desmilitarizatu bat lortu nahi badugu hauek denak soberan daude (polizia ere gorputz armatua bait da).

Agurtzeko, militar politiko, polizi, epaile eta agintariei gure borroka errepresioarekin ez dela amaituko azaldu nahi diegu nahiz eta orain zigorrak jasan behar, ez delako alperrikakoa. Beldurra galtzen ikasi bait dugu. Gero eta egur gehiago eman orduan eta su haundiagoa piztuko dugu. Intsumisioa aurrera doa eta ez dago espetxerik geldituko gaituenik.

LEZOKO INTSUMISOEN TALDEA

LEZOKO KRONOLOGIA

1980: Lezoko lehen objetoreak azaltzen dira garai hauetan oso jende gutxik objetatzen zuelarik.

1982: Beste bi objetore egiten dira.

1985: Tailaketetako tresnak desagertzen dira udaletxetik eta Zubitxo errekan azaltzen dira.

1986: Tarte honetan, guztira, badira 15 gazte objetore, soldaduskara joaten ez direnak.

Bestalde, soldaduska eginiko zortzi gaztek «objeción postmili» delakoa egiten dute.

Giro honetan, tailaketa egunean konzentrazio bat burutzen da herriko plazan, tailaketa tresnak publikoki apurtuz eta udaletxeko ateak kateaturik gelditzen dira. Hau dela eta taila gehiago ez da egiten herrian.

1987: Zozketa egunean manifestazio bat burutzen da Lezon hauen aurka protestatzen.

Udaletxean aurkezturiko mozioa onartzen du plenoak azaroan Lezo «zona desmilitarizada» deklaratzuz eta ejerzitoarekin alistamendu lanetan kolaboratzea ukatuz, hala nola edozein kolaboratzea ukatuz, hala nola edozein kolaborazio mota.

Hilabete bat beranduago «delegado del gobierno» izenekoak akordioa anulatzen du. Militarrek salaketa jartzen dute.

1988: Udaletxean zeuden paper militarrek hartu eta desagertarazi egiten dira, zozketa egunean.

F.F.A.A.S.S. edo militarren astearen aurka mobilizazioak.

1989: Dagoeneko objetoreen kopurua 30 da eta lehen intsumisoak azaltzen dira. Urte berean 25 bat reserbara pasatzen dituzte, hau da, amnistiatuak izaten dira, lege berria aplikatzen hastearen ondorioz.

Manifa zaratatsua zozketen aurka.

1990: Lezoar intsumiso bat, lehen aldiz, «errebeldian» deklaratzuz dute, «orden de búsqueda y captura» ezarriz.

Urte berean udalak Lezo herri intsumisoa deklaratzuz du plenoan, intsumisoari elkartasuna adieraziz eta soldaduskara ez joateko deialdia egiten du.

Beranduago militarrek Jaizkibelen burutzen duten tiro txapelketaren aurka mozio bat onartzen du udalak, hauek arbuiatuz eta martxa bat burutzen da Jaizkibelera akordioa militarrei eskura emanez.

Udaletxean entzerrona bat burutzen da intsumiso bati elkartasuna adierazi asmoz. Aldi berean Lezoko hogeit hamar elkartek sinatzen dute elkartasuna adieraziz.

Giro honetan, protestaldia burutzen da Lezon kamioi militar bat geldituz kateen bidez eta «intsumisioa» eta honelakoak margotzen dira kamioiean. Manifestazioa ere burutzen da, beranduago.

Alkate eta zinegotziak intsumiso «profugoa»rekin autoinkulpatzen dira.

Abendurako badira Lezon 16 intsumiso.

1991: J.M.A. intsumisioa atxilotzen du Guardia Zibilak Ibardineko mugan. Mobilizazioak Lezon: asanbladak, manifestaioak, bide mozketak, Iruneako kuartelaren aurrean konzentrazioa (atxilotua zegoen tokian).

Alkalako espetxe militarra martxa autobusez Lezotik, elkartasuna adierazi asmoz.

Hilabete bat igaro ondoren aske uzten dute J.M.A. lezoar intsumisioa.

Zazpi intsumiso berri deklaratu dira.

1992: 11 intsumiso auzketatu dira Lezoko bake epaitegian; epaiketak zibiletik hasten dira.

Konzentrazioak eta manifa zozketen egunean.

1993: Ordezko zerbitzuari ukatzegatik epaiketatu hasten dira, Gipuzkoan epaiketatu masiboak hasten dira. Lezoar bat epaitzen dute azaroan.

Udalak mozio bat onartzen du epaiketatu arbuiatuz.

Sinadura bilketa burutzen da biztanleen artean, 300 bat bilduz.

1994: Sententzia kaleratzen da: 2 urte, 4 hilabete eta egun bateko kartzela zigorra. Donostiako Gurutze Gorrian egiten da entrega baina ez dute atxilotzen.

Martxoan epaiketatu zuen lezoar intsumisio bat ez da aurkeztu epaiketara eta «orden de búsqueda y captura»pean jartzen du epaileak. Hilabete berean J.M.A. intsumisioa (lehen preso egona) epaitzen dute (sententziaren zai geldituz). Bi paisanozko ertzain intsumisio baten bila azaltzen dira etxera, zitazioetara ez zelako azaldu.

Era berean, «errebeldian» dagoen intsumisioak beste bixita bat jasotzen du etxean, paisanozko ertzainen eskutik.

Udalak mozioa onartzen du, Udaltzaingoak epaitegiarekin ez kolaboratzea onartuz, beste puntuen artean.


Apirilan beste bi intsumiso izango dira epaituak eta ekainean, oraingoz, beste bi daude data jarriarekin.

Une hauetan Lezon 23 intsumiso gara eta beste 25 objetore amnistiatuak (intsumisoen kopurua goruntz doa).

OHARRA: Kronologian ez da sartzen deklaratzera intsumisoak joan garen aldi guztiak, Lezoko epaitegian nahiz Donostian. Era berean epaiketetan lekuko moduan egin eta egiten dutenen aipamena falta da, jende ugari bait da, hala nola elkartasuna adierazi eta adierazten duen herritarrak.

Data arazoa dela eta ahaztu dugu, baita ere, Jaizkibelen burutu diren hainbat akanpada, erromeri eta martxak aipatzea.

LEZOKO INTSUMISOEN TALDEA



PAX ET IVSTITIA

ZURUTUZA 1.994